



Kontu jakina da: gure lan-baldintzak kaskartzeko arrisku bizian daude; Madriletik mehatxuak baino ez zaizkigu heltzen: murrizketa berriak (enplegurako oso kalte handia, esaterako) eta beste kontu batzuek okerrera ere egingo dute (derrigorrezko mugikortasuna, lan zama gehitzea...).

Aurrekoan bidali zizuen LABek informazio orria non azaltzen genuen Parlamentuan jorratzen dabiltzan BJLOren erreformaren aurkako mobilizazioak eta greba eguna deitu zituzten sindikatuak izaten ari ziren jokabide ilun bezain susmagarria.

Kontu honen inguruan dugun iritzia gorabehera, sinestuta gaude ezinbestekoa dela eraso berri honi aurre egitea. Hori dela eta, biharko (hilak 16) antolatu diren elakarretaratzeetan izango da LAB, nork deitzen duen kontuan hartu gabe.

Mobilizazioetara deitu aurretik eta negoziazio bilera eratu gabe, CSI-F, CCOO, UGT eta STAJ sindikatuak Estatu Idazkariarekin hitz egin zutela jakitun gara. Egun hartan erabaki zutenaren inguruan ez dakite ezer estatuko gainerako sindikatuak. Baldintza horiekin LABek ezin die esan justiziako langilei greba eguna egiteko. Ez diegu utziko guri adarra jotzen. Era berean, egun batzuk barru agian etorriko dira esaten ministerioak atzera egin duela haiek antolatu dituzten mobilizazioei esker.

Azkenean BJLOk jasoko balitu aldaketa horiek guztiak –derrigorrezko mugikortasuna arautzea barne, esaterako- eta sindikatu deitzaileek arau hori ez garatzea adostu izan balute ere, arrisku bera izango litzateke, saihestezina atzeratzen besterik ez ginateke ibiliko. Horren harira, justiziako langileok inoiz baino batuago egon beharko dugu Eusko Jaurlaritza interpelatzeko bitarteko langileak kontratatatu ditzan titularrak udalerrri osan mugiarazi beharrean.

Azaroaren 6an, gure jarrera azaltzen atera genuen informazio orria berriro igortzen dizuegu.

No cabe duda de que nuestras condiciones laborales están en grave riesgo de deterioro; desde Madrid nos llegan las amenazas de nuevos recortes (el empleo se vería muy afectado, por ejemplo) y de empeoramiento de otros aspectos (la movilidad forzosa, aumento de carga de trabajo...).

LAB ya os envió la hoja informativa en relación al oscuro, y por ello sospechoso, proceder de los sindicatos convocantes de las movilizaciones y huelga, en contra de la reforma de la LOPJ que está en vías de tramitación en el Parlamento.

A pesar de nuestra opinión al respecto, tenemos el convencimiento de que es imprescindible enfrentarnos a este nuevo ataque. Es por ello que LAB estará en las concentraciones – convoque quien convoque- anunciadas para mañana, día 16 de noviembre.

Sabemos que, antes de convocar las movilizaciones, los sindicatos CSI-F, CCOO, UGT y STAJ contactaron con el Secretario de Estado de Justicia, sin mediar convocatoria de mesa de negociación. Y que del contenido de esa reunión el resto de sindicatos del estado no tiene ninguna información. En esas condiciones, LAB no puede llamar al colectivo de justicia a secundar un día de huelga. No nos pueden tomar el pelo de esa manera. Ni podemos admitir que dentro de unos días nos vengán diciendo que la movilización que ellos han promovido ha hecho recular al ministerio.

Si finalmente la LOPJ recogiera todos esos cambios -incluida la regulación de la movilidad, por ejemplo- y aunque los sindicatos convocantes hubieran pactado no desarrollar esa normativa, el peligro seguiría siendo el mismo y solo estaríamos aplazando lo inevitable. En este sentido, las trabajadoras y trabajadores de justicia tendremos que unirnos más que nunca para interpelar al Gobierno Vasco a que contrate a personal interino en lugar de mover al titular por toda la localidad.

Os reenviamos la hoja que publicamos el día 6 de noviembre donde dábamos a conocer nuestra posición.